Gaia.-2017KO EKITALDIAN BILBO-BIZKAIA HELMUGA TURISTIKOAREN GARAPENA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENARI DAGOKION AURRETIAZKO ENTZUNALDIAREN ETA KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEAREN EMAITZEI BURUZKO MEMORIA

Asunto.- MEMORIA DE RESULTADOS DEL TRAMITE DE AUDIENCIA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DEL PROGRAMA DE SUBVENCIONES DESTINADAS AL DESARROLLO TURÍSTICO EN DESTINO BILBAO/BIZKAIA 2017

AURREKARIAK

Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura arautzen duen 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko, 2017ko ekitaldian Bilbo-Bizkaia helmuga turistikoaren garapena sustatzeko diru-laguntzen programa arautzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren aurrerapenari dagokion aurretiazko entzunaldiaren eta kontsulta publikoaren izapidea argitaratu zen, martxoaren 14an, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriaren izapideen atalean.

ANTECEDENTES

I.- En cumplimiento de lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia de 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, con fecha 14 de marzo se publicó en el apartado de procesos de tramitación de la web de la Diputación Foral de Bizkaia el trámite de audiencia pública previa del avance del proyecto de Decreto Foral regulador del Programa de Subvenciones para la dinamización turística 2017.

OINARRI JURIDIKOAK

LEHENENGOA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozeduran aplikatu beharreko indarreko araudia, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretua (Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena) betetzeko, aurretiazko entzunaldirako izapidea irekita egon behar den 15 eguneko epea igaro ondoren memoria bat egin behar da. Memoria horretan egindako proposamenak eta oharrak jasoko dira eta behin betiko onartzen den aurreproiektuan edo proiektuan sartu behar diren ala ez aztertuko de. Halaber, xedapena egitea desegokia edo bidegabea den adieraziko du.

BIGARRENA.- Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusia da goian adierazitakoa egiteko eskumena duen organoa. Izan ere, berari dagokio goragokoei proposamenak aurkeztea eta bere eskumeneko jardueraren ekimena eta bultzada egitea, hala ezartzen baitu Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko

FUNDAMENTOS JURIDICOS

PRIMERO.- En cumplimiento de la normativa en vigor que resulta aplicable al procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, esto es el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia de 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, transcurridos los 15 días naturales de apertura del trámite de audiencia pública previa debe elaborarse una memoria con las propuestas y observaciones formuladas, valorando su incorporación o rechazo en el anteproyecto o proyecto que definitivamente se adopte o, en su caso, la falta de oportunidad o improcedencia de su elaboración.

SEGUNDO.- Se entiende competente para proceder a lo indicado la Dirección General de Promoción Exterior y Turismo por ser la unidad orgánica a la que corresponde realizar las propuestas de carácter superior, así como la iniciativa e impulso de las actuaciones de su área competencial en base a lo dispuesto en el artículo 6 del Decreto Foral de la Diputación

erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluak.

Adierazitakoaren ondorioz, honako hau sinatzen dutenek proposamen hau aurkezten dizute:

EBAZPENA

LEHENENGOA.- 2017KO EKITANDIAN BILBO-BIZKAIA HELMUGA TURISTIKOAREN GARAPENA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENAri dagokion entzunaldiaren eta kontsulta publikoaren izapidearen emaitzei buruzko memoria onartzea eta Bizkaiko Foru Aldundiko web orrialdean argitaratzeko agintzea.

Hala ere, zuri dagokizu ebazpena ematea.

Bilbon, 2017ko apirilaren 3an

/2017 EBAZPENA, apirilaren (e)koa.

Aurreko txostena onartzen da, eta, beraz, txosten horretan proposatutakoaren arabera ebatzi da.

Foral de Bizkaia 16/2016 de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

Por todo ello, quiénes suscriben tienen a bien someter a la consideración de Vd. la siguiente propuesta de:

RESOLUCION

PRIMERO.- Aprobar la memoria de resultados del trámite de audiencia pública previa relativo al AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DEL PROGRAMA DE SUBVENCIONES DESTINADAS AL DESARROLLO TURÍSTICO EN DESTINO BILBAO/BIZKAIA 2017, recogida en el anexo y ordenar su publicación en la web de la Diputación Foral de Bizkaia.

No obstante Vd. resolverá.

En Bilbao, a 3 de abril de 2017

RESOLUCIÓN Nº /2017, de de abril

Se aceptan el anterior informe y, en consecuencia, se resuelve conforme a lo que en él se propone.

2017KO EKITALDIAN BILBO-BIZKAIA HELMUGA TURISTIKOAREN GARAPENA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENARI DAGOKION AURRETIAZKO ENTZUNALDIAREN ETA KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEAREN EMAITZEI BURUZKO MEMORIA

Lehenengoa.- Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura arautzen duen 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko, 2017ko ekitaldian Bilbo-Bizkaia helmuga turistikoaren garapena sustatzeko diru-laguntzen programa arautzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren aurrerapenari dagokion aurretiazko entzunaldiaren eta kontsulta publikoaren izapidea argitaratu zen, martxoaren 14an, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriaren izapideen atalean.

Goian deskribatutako proposamenari buruz herritarrek egoki deritzeten iradokizun eta ekarpenak idatziz aurkezteko 15 eguneko epea amaituta, jaso diren proposamenei buruzko txostena egin behar da.

Bigarrena.- Kontsultaren izapidean, 3 erregistro egiaztatu dira, eta, bik alegazio-idazkia aurkeztu dute. Parte-hartzailearen profilari dagokionez: bi gizonezkoak dira, eta bestea, emakumezkoa; eta bat partikularra da, eta beste biak, elkarteak.

Hirugarrena.- Lehenengo alegazio-idazkia Enkarterrialde Landa Garapenerako Elkarteak aurkeztu du. Idazki horretan, elkartearen aurkezpena egin eta helburua adierazi ondoren, une honetan martxan duen «Burdinmendi bide berdea» proiektuaren deskripzioa egiten du. Proiektu horren ondorioz, plan estrategiko bat idatzi dute, non udalek hitzarmen baten bidez parte hartzen baitute. Halaber, elkarteak adierazten du badituela beste proiektu batzuk, hala nola zaldi-ibilbideak sustatzeko proiektua (Bizkaiko gainerako ADRekin egiten dena) eta Armañongo Parke Naturala Birding Euskadi sarean sartzeko proiektua. Inguruabar horiek direla eta, eskatzen du Enkarterrialde Landa Garapenerako Elkartea diru-laguntzen programa honen erakunde onuradun gisa sartzeko.

MEMORIA SOBRE LOS RESULTADOS DEL TRAMITE DE AUDIENCIA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DEL PROGRAMA DE SUBVENCIONES DESTINADAS AL DESARROLLO TURÍSTICO EN DESTINO BILBAO/BIZKAIA 20172017

Primero.- En cumplimiento de lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia de 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, con fecha 14 de marzo se publicó en el apartado de procesos de tramitación de la web de la Diputación Foral de Bizkaia el trámite de audiencia pública previa del avance del proyecto de Decreto Foral regulador del Programa de Subvenciones destinadas al desarrollo turístico en destino Bilbao/Bizkaia 2017.

Una vez transcurridos los 15 días preceptivos para que la ciudadanía presente por escrito las sugerencias o aportaciones que entienda conveniente sobre la propuesta normativa antes descrita procede elaborar la presente memoria relativa a las propuestas recibidas.

Segundo.- Se han certificado 3 registros en esta consulta, y de estos registros dos de ellos formulan escrito de alegaciones. El perfil del participante es de dos hombres y una mujer; y un particular y dos asociaciones

Tercero.- Respecto a los escritos de alegaciones el primero ha sido presentado por la Asociación de Desarrollo Rural Enkarterrialde. En dicho escrito, después de hacer la presentación de la Asociación y su finalidad, pasa a describir el proyecto actualmente en marcha como es la "Vía verde Montes de Hierro", cuya consecuencia ha sido la redacción de un Plan Estratégico en el que participan los Ayuntamientos a través de un convenio. Así mismo afirma que la Asociación tiene otros proyectos como son el impulso de las rutas ecuestres, cuyo proyecto se elabora con el resto de las ADR vizcaínas; y el proyecto de inclusión del Parque Natural de Armañon en la Red Birding Euskadi. Por estas circunstancias solicita que se recoja a la Asociación de Desarrollo Rural Enkarterrialde como entidad beneficiaria de este programa de subvenciones.

Alegazio horri erantzuteko, gogorarazi behar da dekretuan bertan justifikatzen dela zergatik sartu diren entitate jakin batzuk diru-laguntzen programa honen onuradun gisa. Hain zuzen, maiatzaren 24ko 55/1994 Foru Dekretua —mendi-nekazaritzaren araubide bereziari buruzkoa— argitaratu zenetik ezarrita dauden mugapenak erabili nahi izan dira. Dekretu horrek eskualdeak mugatu zituen, bere helburuak modu integratuan eta homogeneoan burutzeko. Ondoren, mugapen horiek Landa Ingurunearen Garapenerako apirilaren 8ko 10/1998 Legeak onartu zituen, bai eta ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapeneko elkarteen berariazko araudiari buruzko Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ekainaren 25eko 158/2002 Dekretuak ere. Beraz, landa-garapeneko elkarteak eratzeko orduan, adierazi diren eskualde-mugapenei jarraitu zitzaien, eta horri gehitu behar zaio 10/1998 Legearen 5.1 artikuluak mendi-nekazaritzako aldeekin eta alde behartsuekin lotutako landa-garapenerako plangintzen eremuan ezartzen duen eskuduntza (besteak beste). Landa-garapeneko elkarteek lagundu egiten dute lurralde-antolamendu zehatz bat eratzen; funtsean nekazaritzari zuzenduta dauden arren, haien helburuetako bat aritzen diren eta parte hartzen duten ingurunean turismoa sustatzea ere bada (10/1998 Legearen 3.9 artikulua). Ildo horretan, zentsuzkoa da elkarteok laguntzen onuradun ezartzea. Baina erabaki hau ez da modu itxian ulertu behar, hura ezbaian jartzen duten beste inguruabar batzuk agertzen badira, behintzat. Enkarterri eskualdearen kasuan, landa-garapeneko elkarteaz gainera, diziplina turistikorako bereziki sortu eta arlo horretara guztiz zuzendutako beste elkarte bat dago. Deialdia turismoaren arloko helbururen bat duten elkarte guztiei irekitzeko aukerak berez ekarriko luke Aldundiaren nahia haustea. Hain zuzen, Aldundiak Bizkaian helmuga integral eta integratu baten garapen turistiko bat armonizatu eta sustatu nahi du, eta, beraz, bikoizketak saihestu nahi ditu, eta energia eta ahalegin guztiak norabide bakarrean jarri. Horregatik, aukeratzeko orduan, entitate espezializatua lehenetsi behar da, hots, Enkartur.

En contestación a esta alegación hay que recordar que la justificación de establecer unas concretas entidades como futuras receptoras de este programa de ayudas está perfectamente formulada en el propio Decreto. Se trata de aprovechar unas delimitaciones existentes en Bizkaia desde la promulgación del Decreto Foral 55/1994, de 24 de mayo, sobre régimen específico de la Agricultura de Montaña. Este Decreto delimitaba las comarcas donde hacer efectivos de forma integrada y homogénea sus objetivos. Posteriormente, estas delimitaciones fueron reconocidas por la Ley vasca 10/1998, de 8 de abril. De Desarrollo Rural, y el consiguiente Decreto del departamento de Agricultura y Pesca 158/2002, de 25 de junio, sobre el régimen específico de las Asociaciones de Desarrollo Rural. De esta forma, cuando se constituyeron estas Asociaciones se ligaron a las delimitaciones comarcales indicadas, enlazando la atribución que el artículo 5.1 de la Ley 10/1998 dispone para el ámbito territorial de los Planes de Desarrollo Rural vinculados a zonas de montaña o desfavorecidas, entre otros criterios. La constitución de las Asociaciones de Desarrollo Rural, de esta forma, contribuyen a formar una ordenación territorial específica, aunque esencialmente dirigidas a la agricultura, también tienen como uno de sus objetivos el turismo (artículo 3.9 de la Ley 10/1998) en las que estas Asociaciones participan y colaboran. Desde este punto de vista tiene total sentido establecer estas Asociaciones como las receptoras de estas ayudas, pero sin que esta decisión deba entenderse cerrada si se dan otras circunstancias que obliguen a ponderarla. Es el caso de la comarca de Enkarterri, donde coexiste con la ADR otra Asociación específicamente constituida y dedicada en todo su alcance a la disciplina turística. La alternativa de abrir la convocatoria a todas las asociaciones que tengan una finalidad en materia de turismo significaría romper pretensión de la Diputación de armonizar e impulsar un desarrollo turístico en destino integral e integrado en Bizkaia, evitando dualidades y concentrando toda la energía e ímpetu en una sola dirección. Por ello, a la hora de elegir debe prevalecer la entidad especializada, como es Enkartur.

Bigarren alegazioa ATRAE bidaia-agentzia hartzaileen elkarteak aurkeztu du. Elkartea ez dago ados onuradun jakin batzuk ezartzeko erabakiarekin; izan ere, ATRAEk, haren bazkideek eta turismo-enpresa hartzaileek dekretuaren helburuak betetzen dituzte (haiek guztiak alegazio-idazkian aipatzen ditu); gainera, aurreko urteetako dekretuetan sartuta egon dira. Elkarteak ez dio

La segunda alegación la formula la Asociación de Agencias Receptivas (ATRAE) y en ella manifiesta que esta entidad no está de acuerdo con la decisión de establecer beneficiarios determinados, ya que tanto ATRAE, sus asociados y las empresas de turismo receptivo cumplen con los objetivos del propio Decreto, los cuales cita en su escrito, habiendo sido incluidos en

koherentziarik ikusten turismoa jarduera nagusi ez duten elkarteak onuradun gisa ezartzeari, kontuan hartuta berak ordezkatzen dituen entitateek turismoan baino ez dutela jarduten. Adierazitakoa dela bide, dekretua ez dute onargarritzat hartzen, alderdi horri dagokionez.

Decretos de años anteriores. Manifiesta que no encuentra coherencia en el hecho de fijar como beneficiarias a asociaciones que no tengan el turismo como actividad principal, cuando las entidades que representa se dedican totalmente al turismo. Por lo expuesto no se considera aceptable el proyecto en este aspecto.

Egia da —eta hala aitortu behar dugu— turismo hartzailean diharduten enpresek Bilbo-Bizkaia helmuga turistikoa garatzeko funtseko ehuna eratzen dutela; baina aitorpen horrek ezin du baldintzatu Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntzen ildoak eta programak diseinatzeko duen eskumena. Ildo horretan, nahiz eta aurreko ekitaldietan diru-laguntzen programan produktu turistikoen merkaturatzea sartu den —jarduera hori egiten dute ATRAEk ordezkatzen dituen enpresek—, ekitaldi honetan erabaki da deialdia dekretuaren proiektuaren 5. artikuluan adierazten diren egitateetara mugatzea. Bestalde, lehen adierazi bezala, diru-laguntzaren politika honen barruan erabaki da balizko onuradunak I. eranskinean adierazitako entitateetara mugatzea, aurreko alegazioari emandako erantzunean aipatutako helburuekin. Beraz, ez da onartzen alegazio hau.

Es cierto, y así debe reconocerse, que las empresas dedicadas al turismo receptivo forman un tejido esencial en el desarrollo del turismo en destino Bilbao/Bizkaia, pero indudablemente este reconocimiento no puede condicionar la capacidad de la Diputación Foral de Bizkaia a la hora de diseñar las líneas y los programas subvencionables. En este sentido, aunque en ejercicios anteriores el programa de subvenciones incluía la comercialización de los productos turísticos, que es la actividad que realizan las entidades representadas por ATRAE, en este ejercicio se ha decidido limitar esta convocatoria a los hechos subvencionables que se relacionan en el artículo 5 del proyecto de Decreto. Por otro lado, como se ha dicho anteriormente, dentro de esta política de subvención se ha decidido limitar las posibles beneficiarias a las citadas en el anexo I con las metas citadas en la contestación a la alegación anterior, Por ello, no se estima admisible la presente alegación.

Laugarrena.- Aurrekoa gorabehera, egokitzat jotzen da entitate onuradunen eranskinari argumentu gehiago gehitzea. Hori idazketaren aldaketatzat hartu behar da, xedapenaren funtsari oso-osorik eutsiko baitzaio.

Cuarto.- No obstante lo anterior se entiende conveniente añadir más argumentos al anexo donde se relacionan las entidades beneficiarias, lo que debe considerarse como una alteración de redacción, pero sin afectar lo más mínimo al fundamento de la disposición.

Bilbon, 2017ko apirilaren 3an

En Bilbao, a 3 de abril de 2017